


## IKASTETXEARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

### 1 HEZKUNTZA PROIEKTUA: D ereduko ikastetxea.

#### 1.1 HAUR HEZKUNTZA:

- Dena euskaraz lantzen da, ingelesa ezik.
- **Konstruktibismoan** oinarritutako metodologia: haurrak dituen ezagutzen gainean eraikitzen da jakintza, haurraren interesengandik abiatzen da proiektuak diseinatzeko.
- **Ingelesa** 4 urtetik aurrera: Ikastolen Elkarteak garatutako *Eleanitz proiektua*.
- *Musika* 4 urtetik aurrera.
- **IKT-ak**: ikasgeletan geroago eta gehiago erabiltzen dira teknologia berriak. Ikasgelak hornitzen ari gara material digitalak erabiltzeko oinarrizko tresnekin: gelako ordenagailu bat, mailako arbel digitala, multimedia materialak eta programa interaktiboak hainbat eduki landu ahal izateko (CLIC, jolas interaktiboak, puzzleak...)
- Euskara indartzeko kanpainak: **“Argitxo”**
- Irakur zaletasuna bultzatzeko **“Bularretik mintzora”** proiektua.
- Etapa honetako ekintza bereziak:
  - Zinemara filma bat ikustera (4-5 urtekoak)




## ANAITASUNA IKASTOLA

- Txotxongilo emanaldia.
- Danborrada.
- Inauteriak.
- Ikastola Eguneko dantzak.

### 1.2 LEHEN HEZKUNTZA:

- ***Proiektuetan oinarritutako metodologia*** (euskara-ingurunea-gaztelania) TXANELA material curricularrak
- **Matematika** arloan ***“Pereda”ren metodologia***.
- **Ingelesean *Eleanitz proiektua***.
- ***IKT-ak*** arlo curricular ezberdinetako edukiak lantzeko.
  - Informatika gela.
  - Gela bakoitzean ordenagailu bat eta mailako arbel digital bat .
  - 5.eta 6.mailak Eskola 2.0-ko azpiegituraz hornituta.
  - HH eta LH-ko ikasgelak arbel digitalez hornitzen ari gara.
- ***Euskara*** indartzeko kanpainak.
- LH-ko talde guztiak ***igeriketako 10 saio*** (hiruhilabete bat).
- Eskolaz kanpoko ekintzak: ***Acex programaren*** barruan.
  - 1.zikloan: multikirola, jolasak, mahai jokoak
  - 2.ziklotik aurrera multikirolaz gain beste kirol batzuetan parte hartzeko aukera eta baita antzerkian ere.




## **2 IKASTETXEKO PROIEKTUAK:**

- *Eskolako Agenda 21.*
- *Ikastetxeko IKT proiektua.*
  - Ikastetxeko blog-a:  
<http://anaitasunaikastolakobloga.blogspot.com.es/>
  - Ikastetxeko weborrialdea  
<http://www.anaitasunaikastola.net>
- *Bizikidetza proiektua.*
- *Hizkuntza Normalkuntzarako Plana.*
- *Hezkidetza plana*

## **3 LAGUNTZA ZERBITZUAK:**

- ### **3.1** Ikastetxeko laguntza zerbitzua.
- Aholkularia
  - PT-ak
  - Logopeda
- ### **3.2** Berritzeguneko laguntza zerbitzua.
- HPBetako arduraduna.
  - Fisioterapeuta.



## ANAITASUNA IKASTOLA

- CRI-eko laguntzailea

### 3.3 Udaletxeko laguntza zerbitzua.

**FAZ:** seme-alabak dituzten familientzako arreta-zerbitzua (hezkuntza, gizarte eta familia mailako arazoak gainditzen laguntzeko Udaletxeko Gizarte Zerbitzua)


## 4 IKASTETXEKO EKINTZA OSAGARRIAK

**Helburua:** Euskal Herriko ohiturak ezagutu eta euskal kultura eta euskararen erabilera bultzatu.

- Kanpainak (HH eta LH).
- Euskararen astea
- Euskal kulturarekin lotutako jaiak eta ospakizunak: Gaztañerre, San Martin, Santo Tomás, Gabonak, Santa Ageda, Inauteriak, Korrika.

## 5 IRTEERAK:

- ***Euskal-girotze egonaldiak:***
  - HH-n, 5 urtekoak, 2 egun.
  - LH-n ziklo bukaeretan (2. eta 4. mailetan) 3 egun.
- ***Ingeleseko barnetegia*** (6.mailakoak) 5 egun.
- ***Ski-irteera*** (5, 6.mailakoak) 2 egun (ostegun-ostiral).
- ***Proiektuekin lotutako eguneko irteerak*** ikasturtean zehar.
- ***Ikasturte bukaerako irteerak:***




## ANAITASUNA IKASTOLA

- Mendi irteera: LH osoa.
- Egun osoko irteera: HH eta LH osoa.
- 2 urtekoak: egun erdiko irteera autobusez.

### **6 IGE-AMPA (Ikasleen Guraso Elkarte)**

- IGE bakarra Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH-rako
- IGE-ko partaideak hilero 11€-ko kuota ordaintzen dute honako jarduerak ordaintzeko:
  - Euskara Eguneko antzerki, txotxongiloak...
  - Irteeretako autobusak, tokietako sarrerak...
  - Barnetegietako egonaldiak (euskera/ingelesa)
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
  - Ski irteera
  - Igeriketa saioak.
  - Ikastola eguneko jardueren gastuak..
  - Ea.
- Kuoten bidez jasotzen den dirua IGEk kudeatzen du.

### **7 ESKOLA KONTSEILUA-OOG (Ordezkaritza Organo Gorena)**



## ANAITASUNA IKASTOLA

Anaitasuna Ikastola bi ikastetxek osatzen dute: Anaitasuna Ikastola HLHI (Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea, 2 urtetik 6.mailara arteko ikasleak) eta Ikastola Anaitasuna BHI (Bigarren Hezkuntzako Ikastetxea).


Bi ikastetxe izanik, bakoitzak bere kudeaketa organoak ditu. Bakoitzak bere Eskola Kontseilua du eta bere matrikulazioa.

- **Eskola Kontseilua** da ikastetxeko **Ordezkaritza Organo Gorena**, eta bertan hartzen dira ikastetxeari dagozkion erabakirik garrantzitsuenak.
- **HH eta LH-ko Eskola Kontseilua 30 partaidez osatuta dago:** gurasoak (15), irakasleak (10), Udaleko ordezkaria (1), Administrazio eta zerbitzuetako ordezkaria (1), Idazkaria (1), Ikasketa Burua (1) eta Zuzendaria (1).
  - Partaideak **4 urtetik behin berritzen dira** (erdiak)
  - Eskola Kontseiluko partaideekin eratzen dira Batzorde ezberdinak: ***iraunkorra, ekonomikoa, pedagogikoa, kirolekoa, liburuen kudeaketarakoa eta jai batzordea eta euskara batzordea.***

## 8 ZERBITZUAK

### **Autobusa .**

- 2 urtetik 2./3.mailara arte. Lehentasuna ikasle txikienak eta HPBetako ikasleak dute.
- Funtzionamendu araudia dago.




## ANAITASUNA IKASTOLA

- Prezioak ez dira finkoak, erabiltzaile kopuruaren arabera erabakitzen da prezioa
- Zerbitzu hau IGE-ko guraso talde batek kudeatzen du.
- Arauak weborrialdean eskura daitezke, **DOKUMENTUAK** aldean.
- Edozein informazio jasotzeko eurekin kontaktuan jarri helbide elektronikoko honetan: [anaitasunabus@gmail.com](mailto:anaitasunabus@gmail.com)

### **Jantokia**

- Ikasturte osorako apuntatu behar da.
- Eskatera orria ekainean betetzen da. 2 urteko ikasleentzako epea azarora arte luzatzen da.
- 4 -5 eguneko eskaerak onartzen dira bakarrik.
- Jantoki zerbitzurako beka eskatu daiteke.
- 2 urteko ikasleak siesta egiten dute bazkal ostean.
- 2 urteko ikasleak bazkal ostean jasotzeko aukera dago, 13:30ean.
- Jantokiko araudia weborrialdean eskura daiteke, **DOKUMENTUAK** aldean..



# ANAITASUNA IKASTOLA

ONGARAI Z/G P.K. 71 48260 **ERMUA BIZKAIA**  
943171033-943176338 FAX 943530365  
[www.anaitasunaikastola.net](http://www.anaitasunaikastola.net)